

Iparragireren kantak (II)

Ba ote da euskaldunik Iparragireren zerbit kantatu ez duenik? Ez dut uste besterik inor den hainbeste kantatua. Gainera, orain hain modan den egile-kantari (cantaautor) horietakoen gurazo zen.

Iparragireren kantetan era askotakoak dira, bere herriaren zaletasun-erakusketak, herri ororen azkatasun del-hadarrezkoak, buhame ibilerazkoak, amoriozkoak, ardo kantak, euskaltzaletasunekoak eta abar.

Bere poetagintza bertsoalaritza eskolako da, Xepelarrin hain egokia ez bazeritzatzen ere, baseritar legezkoa ez zelako, kalekume bertsoalaria ez zenik, ezin esan; errendierarik berak desafio famatu hartan aitortuko zuen bezala: "Eskola ona, eta musika, / bertsoalaria gaitera...". Bere futsaen bertsoalaria era zuen. Bertso-gintza, maiz, traketsa xamara zen. Bere kantetan gora-behera handiak nabari dira. Puntu aberasik guti erabili zuen eta puntu batek bestera neurtzen, doina ondo eroteko ohi den etien-unea bera ere beti etzuen errespetatzen. Hala ere, hoiak goiz erdi ziren. Abots oneko gizona zen eta bertsoak musikaz ondo lotzen zekiena.

Bere ibileraz zortiko txikian egindakoak ditte bertsoari taxurrik gehien. Hotek nonbait, publikoan maiz kantatzen zituelako, erabilaz hobetuak zituen noski. Horietakoa dugu bere buhame bizitza eta beti bihotzean zeron herimina hain ongi

adieratzen duten "Kantari euskalduna"ren lau bertso haiek. Hara hemen lehenengo biak:

Gitarra zarzo bat da neretzat laguna; honela ibiltzen da artista euskalduna; egun batean pobre beste batez jauna, kantari pasatzen dut nik beti eguna.

Nai; dala Italia, orobat Frantzia, bietan billatu dut ainitz; malizia.

Ikusten badut ere nik mundu guziaz, beti mailatuko dut Euskal Herria.

Bi bertso hauek erakusten digute gizonaren irudia. Eraz eta esaldiz antzerakoa duz Ameriketaru iteztean kantatu zuena ere. Azken bertsoaren esaldiak, ezin uka, bertsoari hon baten mailakoak direla. Hara hemen, "Guzte gaztetatikan/ herririk kanpora..." haseraz duen horren bukaerakoa; adibidez:

Agur nere boitzeo amaxto maitea! Laster etorriko naiz.

kontsola zaitea. Jaungoikook nahi badu ni urez joateaz; ama, zertarako da negar egitea?

Baina, gitarra zahartoz zebilen honen gogoan zegoen gure lur mailte hontan hezurak ueztea. Hala gertatu ere duela ehun urte. Eta, aurtien egiten zaioren mendeurren ospaketa ondo merezia zuen.

Esan beharrik esta ospen handia eman zioten kantak bere abertzaletasunekoak direla. Hala ere, beste gai batzutan ere badu pitxi gogoangarri-rik. Hauen artean, amoriozkoak.

Garai hartan emakune azal zuriak mallagarrikoak ziren nonbait. Modaren kontuak. Baina, Iparragirrentzat beltzarriak ere mallagarrikoak ziren.

Hala aitortzen dute "Beltzerana" izenburuztat duten bertso politikak.

Amoriozkoetan alpatuenak "Nere maitearentzat" jarri zituenak dira,

"Ume eder bat ikusi nuen/Donostiako kalean..." hasten direnak. Doimua bera ere oso polita jarri zion eta Euskal Herriko kantari taldeak amaitu aitziz erabili dute. Nor ote zen kanta sortzeko etortria eman zion ume eder hori? Ezta eraz jakitekoa.

Iparragirrek korrejatsaile onaren fama zeraman eta bat baino gehi-ago.

kin izan zituen amoriozko harreman onak. Hala ere, abaraskara hurbiltzean, erlauntza guziaz ez zen ezti, eta sufirik erik ere izan zuen nonbait, "Zugana, Manuela" direlako bertsoetan ageri denez:

Amorioz beterik esperantza gabe, zergatik egin zihan biotz; honen jabe?

Manuela-hori ote zen "Ume eder bat"? Bordari adiskideagandik jakin dudanez, kanta hortako emakumea Manuela Franziska Zubiarre zen, 79 urte beteia Tolosan 1916an hila.

"Nere izarra deritzana gutiogo ezagutzen da. Gainera, luzeago izan zitekean, zeren bukaeraz duen hirugarren bertsoak jarraipena izan zitekeen itxura du. Lehen bertsoan osatzen duen irudi ederrari nekez dagokio holako amaitera.

"Ezkontzaren" delakoa ordean, ez dirudi berea. Beste estilo bat du. Bertsoari joeraz hobeto egina da, bertso birbilagoak ditu; baina, bestealde, Iparragirre emakumezala horrotakoa zen eta, holako izateari dagokionez, emakumezkoak gerosten ditu, biziki mailatzen ditu, lirioz betierko hitz ezimindua eskainiz. Hala dire berez amoriozko kanta guziaz, hauxe ez ezik.

Hemen, eskontzaren damuz, emakumezkoak despreziatzen dira

eta hori...

que boy se...

tor. Siendo a...

pero el...

No con la...

En esa...

como ejemplo...

de sus amigos.

Beste erromantiko batzuen berso

Iparragirrek bete ditu egunotan egunkarietako orrialdeak, eta Txahok eta Eixahunek ere loritu dute paperean tokia. Baina izar distiratuak, beti bezala, makalen argia itzaltzen dute eta iluntasunean geratu dira beste XIX. gizaldiko erromantiko ahulak. Gipuzkoarra eta iparratarrak aski aipatuak izan direnez gero, beste herrialdeetako gogoratu nahi ditugu.

Iparragireren adiskidea izan zen nafarria bat izan bedi lehena, Jose Zubiria. Urretxuarraren lagun bakanezina izan omen zen azken urteetan eta Iparragirre zokoratu zenean Zubiriak kitararekin ekinean jarraitu zuela diote. Labayruk dioenez, 1880an Bilbon kitarra kontzeitu bat eman ondoren, Bermeora eta beste Bizkaiko herri batzuetara jo zuen Zubiriak. Herri herri zeharka zebilelarik, adiskidearen heriotzaren berri heldu zitzaion eta berehala Gabiriarantz joan zen lagunaren gorpua lastantera. Ondore gisan Iparragirren kitarra eskuratu zuen Zubiriak eta orain Gernikako Junetezcan ikusten dena beronen biariz: Pedro Egoña jaunaren eskutara heldu zela dio Labayruk. Behargorrian, zorrez jasota, hil zen Zubiria Durangon 1884an.

Arabarra dugu gaurko bigarren erromantikoak, Manuel Ziorruga. 1795an jaio zen gasteiztar hau oso ospetsua izan zen, bere garoan, Aureliano Valle, Jose Manterola, Julio Urkio, Fermín Herran eta beste beronen bizitzarekin arduratu baitira. Iruheko Bergarokan (1807) eta geroago Bergarokan (1812) bere ikasketak egin ondoren, Gasteizko Udaleren Idazkaria izendatu zuten 1822an. Gorteetako Deputatua izatera iritsi zen 1840an eta azkenean, 1872an, bere jaioterriko alkatea hautatu zuten gasteiztarrek. Baina nahiz eta hainbat agintea eta karatu publiko izan, musikak eman zion Ziorrugarri ospea. Gizon liberala zen Ziorruga eta umo-

rez jantzia; bilbotarrei adarra joteko Txinboaren kantua asmatu eta idatzi zuen. Iparragirre baino urte bete geroago hil zen Ziorruga 1882an.

Ez zan Iparragirre izan kitarari bakarra Euskalerrian.

Igarotako mendean indar handia hartu zuen eresgailu honek gure artean eta badira gaurko kantarien aurrekoak gure musikaren historian. Orduan ere orain bezalako kantaldiak eraitzen ziren eta Bilbori dagokionez, Iturbideko Frontoia izan zen jendetza biltzeko toki. Hemen egin zuen Iparragirrek bere kantaldi bat eta haren zagu zuen Begoñako Bartol, haseran zebilen kitararia. Bartolome Villa Bilbao 1846an jaio zen eta "gazte gaztetatikan" hartu zuen kitarari bidea. Iparragirre bezalako morrosko eta bizarduna plaza gizon famatua bihurtu zen laister gure Bartolo eta han haren kitarra saloetan ibili zen bere bizitza guztian 1895an hil arte. Emiliano Arriagaren l'Quak ematen digute Bilboko musika giroaren ikuspena eta Bartolok eta beste halako musikari arteotek agerituen zaitzigu eredu.

Iparragirre ere ezagutu zuen Arriagak eta gure bertsoariari buruz El gran arlote izenezko artikulu bat idatzi zuen. Ondarrutarrak diotenez, hain ezaguna den bertako Boga Bogal Juan Anbrasio Arriola elorriarrak egin zuen. Baina Arriagak diozkan Iparragirrek kantatu zuen lehenabiziz Ondarruko txalupa baten 1855an. Hara hemen beste eztabaida bat Iparragirre eta beste bizkaitar baten artekoa. Gernikako Arbola dala Altuñarekin sorutako polemikarik aparte badugu hemen beste bat Boga Bogal kantarenen egilea nor zen egiztatzeko: Arriola? Iparragirre?

Ene ustez ez da ez bata ez besteak, kantu honen doimua, Jeiki Jeiki kantua bezala, usain zaharragoa baldi.

Dana dala, Iparragirre mito baten bihurtu zaigun pertsonaia da. Erromantismo garaian Euskalerrian -eta hemendik kango ere- hainbat jende beratu eta kezkarazt zuen kantariak badu orain ere herriaren burutazioetan kantua eta gertaldiak bereganatzeo indarra. Halako eguzkiaren inguruan beste izan erromantikoak ilunbean geratzea ez da bada miragarria.

José Antonio ARANA MARTIJA

Durante estos días Iparragirre está ocupando las páginas de nuestros diarios y revistas y con él han compartido los espacios, en alguna medida, otros dos románticos vascos, Chacho y Echahun. Ante estas estrellas quedan desdibujadas otras de nuestro Romanticismo como pueden ser el navarro José Zubiria, compañero inseparable de Iparragirre en sus últimos años que heredó su guitarra, el alavés Manuel Ciorruga que por encima de sus cargos públicos ganó fama por una Canción del Chimbo que compuso para hacer burla de los bilbainos, y el vizcaino Bartolomé Valle Bilbao, "Bartolo", guitarrista, que compartió alguno de los triunfos de Iparragirre en festivales de masas. Emiliano Arriaga que se ocupó de este personaje de Begoña, escribió también unas páginas dedicadas al Gran Arlote Iparragirre. En ellas, contra la opinión de los ondarrutarras de que su Boga Bogal! lo compuso el elorriano Arriola, nos dice que fue Iparragirre quien por primera vez lo cantó en 1855. He aquí, además de la surgida en torno a Altuna, otra polémica que muestra hasta qué punto el urretxuarras se ha convertido en mito a quien el pueblo adjudica canciones y anécdotas. No es pues extraño que Iparragirre desdibuje la personalidad de otros románticos de la época.

En FUENTERRABIA
Próximo comienzo de
28

En finca de 14.000 m². orientada al Sur, con amplias zonas permiten zona deportiva. Distribución:

Semisótano: garaje 2 coches, bodega, asador tipo cocinero, piscina y aseo. Terraza cubierta con salida Jardines.
Planta 1^a: amplio salón con diversos ambientes, cocina, comedor y aseo. Terraza cubierta (opcional) con salida Jardines.
Planta 2^a: 3 dormitorios dobles (opcional) 4 con salida Jardines, todos con salida a terrazas cubiertas, 100 m².
Calefacción individual por circuito agua caliente.

VENTAS: En Fuenterrabia, J.R. AMUNARRIZ, Zuzendaria: Tel.: 64 21 79
En San Sebastián, URBITECNA, S.A. Tel.: 42 46 48

VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL
CREDITO AL 11% Y EXENCIONES

Totalmente exteriores y con amplias terrazas. Constan de: estar-comedor, 2-3-4 dormitorios y 2 baños. Garajes y trasteros.
Precios desde 3.950.000 Ptas.
Información: Teléfono 42 70 03

A LA MEDIDA DE SU HABITACION
ARMARIOS
PRESUPUESTOS
SALON del
Muebles
Avda. Zurriola, 18
i Precios y facilidades sin